
OSTADAR S.K.T
OSTADAR
S.K.T.
33.
URTEURRENA
2015 - 2016

# EDITORIAL

Con esta fiesta celebrada hoy damos por terminada oficialmente la temporada 2015/16. Después de varios años intentándolo, por fin hemos conseguido celebrar este día junto con las finales de fútbol-sala, origen de este club hace 33 años. Por lo tanto, para nosotros es un motivo de satisfacción poder potenciar "el día de las finales" tal y como se conocía antaño, básicamente día de fiesta para la localidad. Nos gustaría volver a ver el polideportivo lleno por los cuatro costados como las finales de entonces, donde Bar Zubi, Pub Patricio, Bar Gure-Etxea, Bar Bolatoki, Kalimotxoak, Kontuz-Hi, entre otros llevaban a sus simpatizantes, ERA UNA FIESTA. Un año más, después de un duro trabajo, damos por finalizada la temporada con la satisfacción de servir a nuestro pueblo y de ofrecer una oferta deportiva cada vez más amplia. Este año, a todas las actividades y secciones que habitualmente ofertamos hay que añadir "Ipar martxa" o "Nordic Walking", aun estando en sus comienzos se han asentado entre nosotr@s y seguro que será del gusto de nuestr@s vecin@s debido a sus grandes ventajas como actividad física.

Estamos en un momento importante, en relación al deporte en nuestro pueblo. Después de haber realizado el análisis del estado de necesidades del deporte en nuestra localidad, toca su ejecución. Esperemos que nuestr@s responsables polític@s estén a la altura, cumplan sus compromisos de legislatura y ofrezcan unos equipamientos con altura de miras y pensando en futuro. Instalaciones que den respuesta a las necesidades urgentes que sufrimos a día de hoy, pero que sirvan para el disfrute de muchas generaciones. El deporte visto como inversión hacia un pueblo que quiere hacer deporte en condiciones, sin tantas estrecheces de equipamientos, horarios, etc, es la mejor inversión para un pueblo que a pesar de las malas condiciones actuales es capaz de tener deportistas de elite; un sueño para el deporte de ocio, el deporte escolar y el deporte federado que es necesario hacer real.

Para finalizar, mandar nuestro agradecimiento a todos los sponsors, patrocinadores, y personas particulares (padres, madres, deportistas...) que con su apoyo permiten a este club seguir trabajando año tras año por una sociedad y un pueblo más deportivo.

# KIROLARI ONENA

Aurten Errugbiko atalean geratzen da saria. JON ANDER PUERTAS jokalariak jasoko du aurtengo Kirolari Onenaren saria. Hogei urteko gazte honek Hernaniko Ohorezko Dibisioan jokatzen ari da, Euskadiko 18 urte azpikoekin jokatu du eta bi aldiz internazionala izan da: Europako Txapelketan 2013an Lisboan 18 urte azpikoekin eta 2015ean Europako Txapelketan Lisboan 20 urte azpikoekin. Eta oraindik geratzen zaiona... Guztiarengatik zorionak Jon Ander.






*Argazkia:Beltzak*

# EDITORIALA

Gaur ospatzen dugun festa honekin 2015/16 denboraldiari amaiera ematen diogu. Azkenean, denboraldi amaierako festa egun hau duela 33 urte klubeko sorrera izan zen areto-futboleko finalekin batera ospatzea lortu dugu. Beraz, pozgarria da guretzat "finalen eguna" sustatzea eta hasierako urtetan bezala ospatu ahal izatea. Festa egun bat herriarentzat. Kiroldegia lepo ikustea gustatuko litzaiguke, lehen Zubi, Patricio, Gure-Etxea, Bolatoki, Kalimotxoak, Kontuz-Hi... taldeek finaletara zaletuak eramaten zituztenean bezala. A ZE JAIA!

Beste urte batez, lan asko egin ondoren, gure herriari zerbitzatzeaz eta gero eta kirol eskaintza zabalagoa eskaintzeaz arro gaude. Aurten, orain arte genituen kirol ekimen eta kirol atalei, beste atal berri bat gehitu behar diogu, "Ipar martxa" edo "Nordic Walking". Hilabete gutxi batzuk besterik martxan egon arren, herritar askok praktikatzen dute eta beste askoren gustukoa izango dela uste dugu, kirol jarduera honek eskaintzen dituen onurengatik.

Herriko kirola momentu garrantzitsua bizitzen ari da. Izan ere, gure herriko kirolaren eta kirolarien beharrak aztertu ondoren, diagnosiaren ondoriok gauzatzea geratzen da. Gure politikariek legealdian hartutako konpromisoak bete ditzatela eta egoerak eskatzen duen mailan jardutea espero dugu. Kirol-ekipamendu berriek egun jasaten ari garen beharrei erantzuna eman eta etorkizuneko generazioen gozamenerako izan behar dute.

Kirola inbertsiotzat hartu behar dela uste dugu. Kirola modu egoki batean egin ahal izateko, ezin da urritasunekin ibili ez ekipamenduetan, ez ordutegiekin... Egungo baldintzak eskasak badira ere, eliteko kirolariak ditugu. Inbertsiorik onena da eta amets bat aisiako kirolarentzat, eskola kirolarentzat eta kirol federatuarentzat.

Amaitzeko, gure esker ona sponsor, patrozinatzaile, guraso, kirolari... guztiei, beraien laguntza eta babesari esker, beste urte batez, elkarte honek kirol-gizarte eta kirol-herri baten alde lana egin ahal izan duelako.



## AUZOLAN SARIA



*Argazkia:Euskararen Maratoia*

Aurten erraza izan da sariduna aukeratzea, Maratoiaren urtea baita!

1986an hasi eta lau urtez behin egiten den euskararen jaia da. Ttakunek dinamizatu eta Udaleko Euskarako Batzordeak baliabideak jartzen dituen arren, "Euskararen Maratoia, bere printzipio nagusiei jarraituz, lasarteoriatarrek egiten dute". 40 orduz, etenik gabe, zortzikote batek herriko plazan dinamizatzen duen jai hau auzolanean egiten da. Herriko elkarte eta herritarrek parte hartzen dute: elkarte gastronomikoak, kirol elkarteak, abesbatzak, musika eskolak, ikastetxeak, euskaltegiak, auzoelkarteak... "Euskararen Maratoia, Lasarte-Oriako herritarrak gara".

# TXIRRINDULARITZA

Ostadarreko zikloturistek, aurten ere kilometro pila egiteko asmoa dute. Urria bitartean, 2.436 kilometro egingo dituzte bizikleta gainean, iaz baino 150 km gehiago. Sasoiean daude!

Zikloturismoa gustuko baduzu bizikleta hartu eta Ostadarreko zikloturista taldearekin ateratzera anima zaitez. Igandero zaharren etxetik ateratzen dira.

**OSTADAR S.K.T.**

**SALIDAS DE CICLOTURISMO 2016**

| FECHA | SALIDA A: | KMS | FECHA | SALIDA A: | KMS |
|---|---|---|---|---|---|
| 06-mar | San Prudentzio | 55 | 26-jun | Larraitz | 80 |
| 13-mar | Amezketa | 60 | 03-jul | Vuelta Errezil | 88 |
| 20-mar | Zumaia | 60 | 10-jul | Lizarrusti | 100 |
| 27-mar | Olaberria (Irun) | 64 | 17-jul | Gabiria | 96 |
| 03-abr | Iraeta | 70 | 24-jul | Olaberria - Lazkao | 80 |
| 10-abr | Guadalupe | 60 | 31-jul | Lastur | 90 |
| 17-abr | Zaldibia | 75 | 04-sep | Itsasondo | 65 |
| 24-abr | Alto Itziar | 80 | 11-sep | Arrona | 65 |
| 01-may | Mandubia | 96 | 18-sep | Altzagarate | 72 |
| 08-may | Goizueta - Leitza | 90 | 25-sep | Faro Hondarribia | 65 |
| 15-may | Ibardin | 100 | 02-oct | Bedaio | 70 |
| 22-may | Lierni | 94 | 09-oct | Vuelta Oikia | 65 |
| 29-may | Deba | 90 | 16-oct | Orendain | 60 |
| 05-jun | Otzaurte | 115 | 23-oct | Artadi ( Zumaia) | 62 |
| 12-jun | Ondarroa | 115 | 30-oct | Lizartza | 54 |
| 19-jun | Azkain | 100 | | | |

Hora salida ☐9:00 ☐8:30 ☐8:00

OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEA http://www.ostadarskt.eus 943 36 04 33 ostadar@ostadarskt.eus

# KROSA

Izugarria azken edizioan Korrika Festak izan zuen harrera, bost eta hamabost urte bitarteko ia 1000 korrikalarik parte hartu zuten. Orain arte helduen lasterketa proba nagusia izan den arren, edizio guztietan protagonistak dudikbe txikienak izan dira. Baina hemendik aurrera agian protagonistak izatez gain lasterketa nagusia beraiena izan beharko luke.

Urriko azken igandea egun erreferente bihurtu da askorentzat. Festa egun bat bilakatu da eta horrek motibatzen gaitu beste edizio berri bat antolatzeko.

Beraz, urriaren 30ean festa honetara gonbidatuta zaudete.




# BOLOAK ETA TOKA

Siendo un deporte autóctono nos vemos en la obligación de cuidarlo y mimarlo. Es una modalidad que tiene muchos problemas en cuanto al número de practicantes. Los veteranos lo van dejando y no hay mucho recambio. Este año a duras penas se han podido inscribir en los campeonatos por falta de bolaris. Encima no hay apoyo por parte de la gerencia deportiva, alguna posible alternativa se queda muerta antes de nacer; que difícil es impulsar el deporte en este pueblo, y en este caso, siendo un deporte minoritario, las consecuencias pueden ser devastadoras. Mientras tanto, la sección seguirá organizando las tiradas de San Pedro, y memorial Santi/Martín, además de las correspondientes a la propia competición guipuzcoana. Desde aquí hacemos un llamamiento a aquellas personas que lo deseen se acerquen al bolatoki y prueben, disfrutarán.



# TENIS

Aurtengo denboraldia bukatzear dago eta kontentu egoteko arrazoiak ditugula esan dezakegu: batetik, zortzi eta hamasei urte bitarteko hogeita bost tenislari ilusioz eta seriotasunez ahalegindu direlako tenisaren sekretuak bereganatzen; bestetik, ikasturte honetan lortu ditugun aurrerapenak aipagarriak direlako.



Honengatik guztiarengatik eta ohiturei eutsiz, ekainean denboraldiari amaiera emango diogu Tenis Jaiarekin. Bertan, tenis familiako kide guztiak elkartuko gara azken raketazoak jotzeko. Gogoratu, lehen urratsak eman ala sakondu nahi duenarentzat Tenis Eskolako ateak zabalik daudela!



# RUGBY TALDEA

Los Beltzak crecen. Cuando se crece, nadie se da cuenta de haberlo hecho hasta que alguien te lo manifiesta; Los Beltzak, siguen creciendo; desde la escuela hasta la División de Honor B de la liga estatal; nuestros equipos que compiten tanto en Liga guipuzcoana, como son los sub 14, y los que participan en la Euskal liga -los Sub 16, Sub 18 y el Senior B-.

Porque con los resultados obtenidos se manifiesta el crecimiento, y en esta temporada los más txikis, han causado sensación en el torneo de Ziboure, ocupando el 4º puesto de 25 competidores varios de ellos del otro lado de la muga. Los Sub 14, se han proclamado terceros en la liga, y 4 jugadores de este equipo han participado con la selección de Guipúzcoa.

Los Sub 16 y sub 18 se han clasificado en la parte central de la tabla, con grandes resultados sobre rivales directos y desarrollando un rugby que genera muchas expectativas para las categorías superiores donde los Seniors se han consagrado como grandes campeones porque sabiendo de la dificultad que entrañan estas competiciones, la dedicación que requieren, entrenando hasta 4 días a la semana, han superado y continúan haciéndolo, todas las barreras con las que se topaban para lograr que algún día no muy lejano, podamos ver a varios jugadores Beltzak compitiendo en la División de Honor española o internacional.



*Argazkia:Beltzak*

# SASKIBALOIA



Berriro ere hemen gara, urte amaiera ospatzen amaituko den denboraldiarengatik. Aurten lehenengo aldia izango da, non saskibaloiko atala ziklo batean bihurtzen den: urtero talde berriren bat sortu da eta genituenak mantendu, baina oraingoan desberdina izango da, azkenean hori baita kirolaren iturria.
Denboraldi honetan 5 talde eduki ditugu, klubarentzat urte guztian zehar eginiko lanaren eta esfortzuaren saria da. Egunak joan eta egunak etorri sortutako taldeentzat lanean aritu gara bi helburu garrantzitsurekin, saskibaloia sustatzea eta kirolari bezala hobetzea. Egindako lan horrek guztiak, merezitako emaitzak ekarri dizkie taldeei.



Aurten azpimarratu ditzakegu Saskibaloi Eskola, Espainiako kuadrangularra, 3x3, Euskal Liga, GBC-ko irteera, Barainaingo partiduak, Baskonia-ko irteera, Kadete-en Final Four-a eta beste hainbat ekintza.
Saskibaloi eskolak oso harrera ona izan du. Lehenengo urtea izateko lau adin ezberdinetako 17 neska-mutil izan ditugu, ostiralero hitzordu garrantzitsu batekin saskibaloiaz gozatzeko. Kirol, jolas eta hezkuntza eremu berri honetan ikasle-jokalariari prestakuntza osoa ematea da gure asmoa. Gure filosofiaren oinarria kirol modernoa da. Psikologia, pedagogia eta psikopedagogia uztartuz gure jokalarien hoberena ateratzea lortzen dugu. Beraz, gure filosofiaren helburua ez da alderdi tekniko eta taktikoei lehentasuna ematea, baizik eta kirolariak garatzea.
Azpimarratzekoa Espainiako kuadrangularra izan da. Zortekoak gu ekintza honek daukan maila gure herrian ikusteko aukera izan dugulako. Espainiako lau selekzio etorri ziren parte hartzera; Madrid, Gaztela eta Leon, Galizia eta Euskadi. Horietatik bik Espainiako lau onenen artean amaitu dute aurtengo denboraldian. Kiroldegian ikusi ahal izan dugun talentua paregabea izan da, eta onuragarria gure jokalarientzat. Etorkizunari begira errepikatzeko prest egongo gara.

Aurten ere errendimenduko junior neskek mailarik gorenera igotzea lortu dute, Euskal Liga-ra. Azkeneko urteetan errendimendu maila menperatzen ibili ondoren, azken pausoa falta zitzaien, euskal liga. Igoera gutxi balitz, hurrengo urterako permanentzia lortu dute ere.

Badirudi emakumeen kirola sustatzeko proiektu gutxi daudela. Guri dagokigunez, lanean arituko gara, neskek maila ezberdinetan kirola egiten jarrai dezaten, saskibaloiak herrian merezi duen tokian jarrai dezan eta "Ostadar Saski" bezalako proiektuengan ilusioa mantendu dadin.



# NORDIC WALKING

Ipar Matxa Ostadarrera duela urte-erdi iritsi dela. Orduz gero, talde bat osatu dugu aktibitate hau partekatu eta ikasten jarraitzeko. Hastapen ikastaroa egin duen pertsona orok eta bere teknika hobetu nahi duenak, astelehenero eta asteazkenero eskaintzen ditugun ikastaroetara etor daiteke.
Hilero irteera bat antolatzen dugu elkar ezagutzeko, kirola egiteko eta ondo pasatzeko asmoz.
Kirol hau ezagutu nahi baduzu, maiatzaren 28an, denboraldi amaierako festan, Lasarte-Oriako instruktoreak eta ipar martxako talde bat Loidibarrenen egongo gara, beraz gerturatu eta disfrutatu.






Hace menos de un año que el Nordic Walking llegó a Ostadar. Desde entonces y poco a poco hemos ido construyendo un grupo con el que compartir esta actividad y seguir aprendiendo. Todas las personas interesadas que han hecho el curso de iniciación pueden perfeccionar su técnica con las clases semanales que se imparten lunes y miércoles.
Mensualmente se organizan salidas para ir en grupo con el objetivo de ir conociéndonos y sobretodo, de pasarlo bien mientras hacemos ejercicio.
En la fiesta del próximo 28 de mayo, los instructores de Lasarte-Oria y un grupo de practicantes estarán en Loidibarren por si quieres conocer más sobre este saludable deporte.



# MENDIA

Mendi saileko taldea osatu gabe beste urte daramagun arren, mendizaleok gure jarduerarekin jarraitzen dugu: mendiak igo.
Aurten federatuen kopurua 88ra iritsi da. Beti bezala ekintza nagusiak ondorengoak dira: mendi- ibiliak egitea, mendiko eskia, eskalada eta alpinismoa.
Maiatzean egingo dugu hamaikagarren martxa luzea eta aurtengoa Oiatzun-Lasarte izango da, Fati Serrano eta Joxean Salsamendiren gidaritzapean. Esan, Fati eta Joxean iaz merezimendu osoz omendu genituela urtero egindako lanarengatik.
Ostadar S.K.T-ko web orri berriaren mendiko sailetik, iazko udan hasi ginen hainbat irteeren berri ematen eta gonbitea luzatzen ahalik eta mendizale gehienok elkarren artean partekatu ditzagun egindako irteerak.
Urrian ospatzen den Buruntzaldeko Ibilaldiaren Egunean herriko Kiroldegiarekin kolaboratu genuen urtero bezala.
Urtea agurtzeko V. Txistorrada antolatu genuen Buruntzako San Roke ermitan. Jende ugari bertaratu zen klasikoan bilakatu den hitzordura. 11:15etarako txistorra bukatu zen...
Amaitzeko, aipatu rokodromoaren egoera dela eta, Udalarekin harremanetan jarraitzen dugula.

Igoera zoriontsuak guztiontzat!



# ARETO FUTBOLA

**Segundo año de un proyecto que poco a poco va creciendo y tomando forma. Son muchas las piedras del camino, nos hemos decidido por un deporte a priori minoritario, una alternativa deportiva más dentro de la amplia oferta del club Ostadar y por el cual no llaman a la puerta con intención de inscribirse.**

Nuestro objetivo es potenciar este deporte dentro del club y nuestra localidad. Como todo proyecto de futuro, lo más importante es establecer buenos pilares que sustenten toda la estructura. La continuidad deportiva pasa por una renovación constante y por eso este es nuestro principal objetivo.

Este año hemos colocado nuestro primer pilar con nuestro primer equipo juvenil, el cual en su primer año ha sobrepasado nuestras expectativas tanto deportivas como personales, y los cuales han ayudado a los éxitos deportivos e individuales logrados por nuestros equipos federados esta temporada, teniendo una amplia y variada representación en los mismos.

Estos pilares sustentan al equipo de 2ª territorial que recién ascendido a la categoría ha logrado ascender nuevamente y el año que viene militará en 1º Territorial. Enorme éxito el cosechado por el equipo que demuestra que pese a la veteranía del equipo, sus ganas y capacidad de trabajo siguen intactas.




Por su parte el equipo de Tercera Nacional, ha logrado cumplir su objetivo de mantener la categoría y otro año más el equipo continuara en la Tercera División Nacional.

El **Torneo local de Fútbol-sala** un año más disfruta de un gran éxito, un año más la implicación de los equipos es mayor y se disfruta deportivamente de la competición siendo este uno de los objetivos del torneo. Los equipos han dado además un salto de calidad, lo que nos ha dado un torneo más igualado, donde los encuentros han estado más disputados que nunca.

Otra novedad del año, ha sido el **Torneo de Navidad**, el cual ha contado con una gran afluencia de equipos de la localidad y en la que los ha dado la oportunidad de acercar a los niñ@s nuestra pasión por este deporte.

Pero todo esto no es importante, todo proyecto tiene su proceso, tiene su tiempo de creación, y para ello tienen que existir personas que trabajen por y para el desarrollo del mismo. Y ese es nuestro mayor logro, disponemos de un gran grupo de trabajo que posibilita todo este proyecto y al cual se debe tener en cuenta en un resumen anual, ya que tras cada equipo, existe un entrenador, un ayudante, un delegado, gente que viene a entrenar para ayudar a los equipos, aficionados que muestran su apoyo, patrocinadores, colaboradores… los cuales son parte fundamental de cualquier deporte y pese a que no suben a por el premio, forman parte del mismo.

# PORRA

Giroa bihar igandean amaituko da, baita gure porra ere. Hurrengo Porra, TOURreko Porra, uztailaren 2an hasiko ba. Beraz, boletoak San Pedro jaietan ohiko tabernetan aurkituko dituzue. Porran parte hartzen duzuen guztioi mila esker, bihotzez. Zuen laguntza oso garrantzitsua baita Ostadarren kirol egitasmoa aurrera atera ahal izateko.

# FUTBOL ESKOLA














**2015-2016 Denboraldirako izen ematea**

Ekainaren 6tik 17ra, 18:00etatik 20:00etara Ostadarreko bulegoan, 2006 -2007-2008 urteetan jaiotakoentzat.

**Inscripción para la temporada 2016-17**

Del 6 al 17 de junio, de 18:00 a 20:00 de la tarde en la oficina de Ostadar, para los/as nacidos/as en 2006-2007-2008.

# FUTBOLA





Alebin B



Errendimenduzko alebina



Lehenengo infantila



Infantil txikia B



Infantil Txikia



Ohorezko infantila



Lehenengo kadetea



Ohorezkoa kadetea

# FUTBOLA





*Lehenengo jubenila*



*Ohorezko jubenila*



*Lehenengo erregionala*



*Ohorezko erregionala*



*Nesken erregionala*

2015-16 denboraldian 13 talde izan ditugu alebinetatik hasita eta erregional mailara arte jokatzen, eta futbol eskolan 130 neska-mutil. Denboraldiak denetarik eman digu, baina orokorrean oso denboraldi lasaia izanda.

Iaz bezala, nesken taldea ateratzeko zalantza asko izan genituen neska nahiko ez zegoelako baina azkenean aurrera egin zuten. Aurten esperientzia berri bat sortu dugu alebinetik kadete bitartean, horren bitartez hainbat bilera egin dira talde horien gurasoekin , Ostadar zen den, gurasoen jarrera, hizkuntzaren garrantzia eta hainbat gai azalduz, oso esperientzia baikorra.

# EGITARAUA

## 2015-201 DENBORALDI AMAIERAKO FESTA MAIATZAREN 28AN

Urtero bezala, denboraldiari amaiera emateko festa batekin bukatuko dugu Loidibarren frontoian. Aurten Areto-futboleko finalen egunarekin bat egiten dugu, beraz egun osoko jaia izango da. Goizean finalak, arratsaldean kirol-guneak martxan jarriko ditugu, partaide guztien artean gauzak zozketatuko ditugu... Gainera, egun osoan zehar taberna txiki bat edari, pintxo eta ogitartekoekin jarriko dugu.

**10:00** Areto - Futboleko Kontsolazio finala kiroldegian

**11:30** Jalguneko lagunekin partida kiroldegian

**12:00** Areto-Futbol Txapelketako finala kiroldegian: IZKIÑA – TXINDOKI

**14:00** Loidibarren frontoian areto-futboleko taldeen bazkaria

**16:00** Areto-futboleko sari banaketa

**17:00 – 19:30** kirol guneak martxan egongo dira (saskibaloia, futbola, bolo eta toka, eskalada)

**17:30** Ipar Martxako irteera

**19:30** jokalari jatorrenei trofeoak, Auzolan Saria eta Kirolari Onena

**21:00** Championeko partida pantailan

Como todos los años, finalizaremos la temporada con una fiesta el 28 de mayo en el frontón de Loidibarren. Este año coincide el día de las finales de fútbol sala con la fiesta de final de temporada. Por lo tanto, la fiesta se alargará todo el día. A la mañana las finales en el poli y por la tarde distintos juegos, sortearemos regalos entre los participantes... Y durante todo el día habrá una barra pequeña con bebidas, pinchos y bocatas.

www.ostadarskt.eus ostadarskt ostadarskt

**OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK**
eskerrak eman nahi dizkie, TXINTXARRI aldizkariari, TXEMA VALLESi eta baita gure babesle guztiei ere eskainitako laguntzarengatik.